

Garbiketa

Joxean Agirre

Gaurko garbiketa saioa Elliott Murphy-rekin hasiko dut», zioen joan den igande arratsaldean Iban Zalduaren txio batek eta «Gaur igandetako garbiketa, Tom Petty-rekin», esan zezakeen aurrekoan edo «Manfred Mann taldearekin hasi gara» aurrekoan. Plurala erabiltzen duenean emaztearekin edo alabaren batekin irudikatzen dut grazia gutxiko lan horretan eta singularrean hitz egiten duenean bakarrik irudikatzen dut, nik neuk ostegun eguarteetan egiten ohi dudana bezala.

Zergatik ostegunetan? Ez dakit, eguna baldintza ziezadakeen oroitzapen bakarra umetakoa baita eta umetan larunbat arratsaldetan egiten baitzen gurean logelen garbiketa eta ez nolanahikoa gainera, menda-erratzarekin garbitu ondo-

ren, argizaria eman eta hanka banatan trapuak jarri ondoren ballet gisako bat egiten baikenuen distira ateratzeko.

Ni ere, Zalduaren gomendioei jarraiki, kaskoetan musika bandaren bat dudala hasi ohi naiz, baina ezin izaten diot arre-ta gehiegirik ipini, gerta baitaiteke ontzien garbigailuari *Fairy Platinum Plus* bat jarri beharrean arropen garbigailuari dagokion *Ariel Allin1* bat jartzea edo, musikak zentzuak nahasteko duen gaitasunarekin, kristalak Mistolekin garbitzen hastea ere.

Badu etxeko garbiketa orokor horrek bere poetika. Joan den mende hasieran Frantzia eratu zuten etxekoandreen lehen sindikatuak ere hitz egiten zuen horretaz. Niri garbigarrien iragarkietan zikina ezabatu eta bakterioak desagiteko

erabiltzen den hizkuntza belikoa atsegin zait eta sukaldeko harraska azpian gordeta dudana *Cillit Bang* markako bildumara joan ohi naiz, han armategi bat ezkutatuko banu bezala, eta haiekin deklaratzeko diet gerra zikin mota guztiei eta zinez aitortu beharra daukat gauza gutxi direla ederragoak bainuontzi garbi eta distiratsu bat baino. Baina plazer intimo eta gordeak dira horiek. Auzoan ezagutzen ditut emazteak soldata hobeazuelako umeak zaindu eta etxea garbitzeko ardura duten gizonezkoak, baina elkartzen garelarik, ez dugu garbigarriez hitz egiten, futbolaz, eguraldiaz eta Urkulluz baizik. Eta Urkullu aipatu dugunez, horietako batek esan zidan aurreko batean ez duela ezagutzen *repris* gutxiago duen pertsonarik. •

Hondamena

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Etxe apurtua izanda, zutik zaudenukoan / osotasun horregatik, maite zaitut osoan», idatzi zuen Koldo Izagirrek eta abestu Joseba Tapiak, Wafa Idrisen oroimenez. Palestinar gatazkako lehen emakumezko bonba jartzaile suizidatzat hartzen da Idris.

Abesti horretan aipatzen diren oliba mikatz, pikondo erre, mahasti zapaldu edo etxe apurtuen parekoak eta are gauza gogoragoak ikusten ariko dira egunotan palestinarrak. Noiz eta

palestinarrak exodoa hasi zenetik 73 urte bete diren aste berean.

Urteroko eran, gaurko egunez oroitu-ko dute Nakba eguna, Israelgo estatua- ren sorreraren egunarekin lotzen dutelako palestinarrak beren hondamena. Haien lurra eta etxea uztera behartuak izan dira, 1948ko maiatzaren 15 hartatik, ehunka milaka palestinarrak. Tapiaren abestiak dioen eran, «sua bihotzondoan» dute palestinarrak ordutik. Eta aste honetan, Gazako mugan gorpuztu da Israelen palestinarrakiko darabilen bor-

tizkeria. Milaka militar mobilizatu eta bonbak jaurti dizkiete. Hamasek Gazatik Jerusalemara koheteak jaurti ditu, eta aste odoltsua izan da.

Israelen inpunitatez dihardu, besteak beste, AEBek oztokatzen dutelako Israelen jarrera publikoki gaitzesteko nazioarteko erakundeek izan dezaketenen asmoa. Baina egoerak ez du hobera egingo nazioarteko komunitateak berehala esku hartzen ez badu, eta estatu palestinarrari aitormen ofiziala egiten ez badio. •